

DIRU-ITURRIAK

ZENBAT ETA NOLA ORDAINTEKO PREST DAGO ZUEN BEZEROA ESKAINTZEN ARI ZARETEN PRODUKTUAREN EDO ZERBITZUAREN TRUKE?

Gure enpresan interesa duten bezeroek benetan baloratu behar dituzte gure ideiak, hala nola onura espezifikoak, arazoen konponbideak edo hobekuntza esanguratsuak eguneroko egoeran. Horrek esan nahi du ekonomikoki inbertsio handi bat egin behar dela hasieran, baina gure zerbitzuak hortz klinikaren iraganean potentziatuko dizkio, inbertitu den dirua esponentzialki bueltatzen eta biderkatzen.

Bezero bat eskaintzen duenagatik zenbat ordaintzeko prest egongo litzatekeen zehazteko, lehenik eta behin bere arazoa ulertu beharko genuke eta zein garrantzitsua den konpontzea baita ere. Bezeroak gure proposamena balio handia duela ikusten badu, bertan inbertitzeko prest egongo da. Hala ere, haien baliabideen arabera moldatuko gara, inbertsio gaitasuna mugatuta baldin bada gure zerbitzua ahalik eta sinpleenak baina berritzaileak izaten saiatuko gara.

Hori kontuan izanda, esan dezakegu prezioa hainbat faktoreen arabera sailkatu ahal dela, **dinamikoa** izango da: zenbat denbora behar den, zenbat espazio dagoen, zenbat aldaketa egingo diren, zenbat pertsonal dagoen... Hau da; ze arazoak edo konpontzeko gaitzak dauden arabera.

Bezeroa jakin behar du prozesuan zehar **eragozpenak egon ahal** direla eta hori prezioan eragin zuzena izango du. Hala ere, prezio desberdinak proba ditzazkegu, hobeto funtzionatzen duten ikusteko eta hortz klinikaren feedbackaren arabera doitzeko. Horretarako aurrekontuaren arabera klinikarekin hitz egingo dugu eta erabakiak hartzeko denbora emango diogu, haien balorazioa eta iritzia lortzeko, erabaki bat izateko eta lantzen hasteko.

Bezeroari zuzenean galdetzea edo inkestak egitea lagungarria da gure ustez zenbat ordaindu behar den jakiteko. Haien beharrak ulertzeko, konponbidearen balioa jakinarazteko eta merkatuaren erreakzioaren arabera prezioa doitzeko prozesu bat da.

Orduan, hau kontuan izanda, **elkarte bakoitzarekin inbertsioak ez dira berdinak** izango. Hortz-klinikaren arabera, baliabide batzuk edo beste batzuk erabiliko ditugu, dena kasuaren arabera.

Honekin baita esan dezakegu diru **ordainketa zatika** izango dela. Lehenengo ordainketan %40 eta hurrengo biak %30 bakoitzean. **Komisio araberez** landuko dugulako enpresaren diru-sartzeak eta partaiden portzentaiak.

SUBENTZIOAK

- **Gaztempresa fundazioan** hainbat laguntzak eskaintzen dituzte haien artean bat aukeratu dugu. Laguntza honek “Ayuda cheque autónomo/a” du izena, laguntza honek aukeratutakoa izan da Vitoria-Gasteizko udala eskaintzen duelako, berriz dauden besteak Gipuzkuako Foru Aldundiakoak dira. Laguntza honek **960€ eskaintzen dizkigu** gure enpresan "BerriKlinik" inbertitzeko. (<https://gaztempresa.org/>)
- **Hazibide** hazi kapitaleko sozietatea da, eta Arabako Foru Aldundiak, Gasteizko Udalak, Kutxabankek, Taldek eta Erkidek osatzen dute. Arabako enpresa txiki eta ertainei (berriei edo sortu berriei) babes ekonomikoa ematen die, Kapital Sozialean aldi baterako eta gutxiengoan parte hartuz, eta **gehienez 120.000€** bekarpena eginez. (<https://www.bicaraba.eus/es/ayudas/hazibide/>)
- **Innobidea**, Eusko Jaurlaritzak enpresen barruko berrikuntza-proiektuak finantzatzeko eskaintzen dituen dirulaguntzak dira. Berriklinikek osasuna, teknologia edo prozesuen hobekuntza bezalako sektoreetan lan egiten duenez, horrelako laguntzetarako hautagai izan ahal gara. Proiektu horietarako diru laguntzaren gehieneko zenbatekoa **150.000€**koa izan daiteke enpresa bakoitzeko, deialdiaren eta eskatutako laguntzaren intentsitatearen arabera. (https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2021/ayudas-para-el-programa-innobidea-kudeabide-alava-2021/web01-tramite/es/)
- Digitalizazioa gero eta garrantzi handiagoa duenez, eraginkortasun operatiboa hobetuko duten teknologiak ezartzeko laguntzak daude. **Industria Digitala 4.0** programak enpresetan soluzio teknologiko aurreratuak integratzeko dirulaguntzak

eskaintzen ditu. Kasu horretan, laguntzak gastu hautagarrien **%30** ere estal dezake, 300.000€ gehienez. (<https://www.industriaconectada40.gob.es/Paginas/index.aspx>)